

## I ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, aurkeztutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, dagozkien erregistroetan, administrazio publikoen datuen bitartekaritza-plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundearen kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen oposizio arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jardueraren ardura duen organoak ikusten badu.

Arrazoitutako aurkakotzarik agertuz gero, harekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira kontsultaren aurka dauden agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak honako datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean:

- Unibertsitateaz kanpoko tituluak eta unibertsitatekoak
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara-ziurtagiriak.
- IT Txartelak: ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak

### DATUAK KONTSULTATZEARI BAIMENA EMATEA/ EZ EMATEA

..... jaunak/andreak,  
..... NAN/AIZ zk.dunak, honako prozedurarekin lotuta:  
.....

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikularen arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatuz, honako informazio hau kontsultatzearen aurka nago:
  - Unibertsitateaz kanpoko tituluak eta unibertsitatekoak
  - Hizkuntza eskakizunak

- IT Txartelak: ziurtagiriak
- Deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzua

Aurkaritza adierazteko arrazoia:

.....  
.....

Honako dokumentuak aurkezten ditut, ez dudalako kontsultarako baimenik ematen:

.....  
.....

.....n, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

Sin.: